

MARKINA-XEMEIN / Takusan de Senegal jaia arrakasta handia eduki du

Herritarren parte-hartze handia eta ekimenak egiten jarraitzeko asmoa eragin ditu egitasmoak.

EIDER MUGARTEGI

Erakusketa, proiektzioak, tailerrak eta jaia. Hainbat ekitaldi egin dira urrian markinarrek eta Markina-Xemeinen bizi diren senegaldarrak elkar hobeto ezagutzeko, baina onena ekimen horiek eduki duten erantzun ona izan da. Antolatzaileek →Herri Bibliotekak, Uhagon Kultur Elkarteak eta ASEMAk→ egitasmoaren balorazio on-ona egin dute.

Lan handia eta pilo bat batzar egin zituzten antolatzeko, baina emaitzak merezi izan du. Jendearen erantzuna, bai markinarrena eta bai senegaldarrena ere ona izan da, ekimen guztietan eta parte-hartze handia lortu dute.

Markina-Xemeinen bizi diren senegaldarren erakusketatik, esate baterako, 300 bat ume pasatu dira. LH5etik DBH4ra lotu genituen bisitak herriko eskola biek, eta LH2. eta 3. mailakoak ere etorri dira, azaldu dute antolatzaileek. Horrela, guztira, hamalau bisita eduki dituzte erakusketak iraun duen bitartean.

Taldeen inplikazioa

Irakurleen Txoko bereziak ere emaitza ona izan zuen, eta jadanik senegaldar batek izena eman du bertan parte hartzeko. Ipuin kontalarien saioan ere jende asko batu zen, eta azken eguneko jaia denon jaia izan zela nabarmendu dute. Frontoian, iluntzean, ume eta nagusi piloa batu zen, gogoratu dute.

Hori parte-hartzea lortzeko herriko taldeek eduki duten inplikazioa nabarmendu dute antolatzaileek. Hamalau taldek eta banako batzuk parte hartu zuten azken eguneko jaietan: Lea-Artibai Euskararik, AEK-k, Bertso Eskolak, Artibai Futbol Taldeak, Artibai Mendigoizale Taldeak, Atletismo Taldeak, Gaitun Emakume Taldeak, Ekozainek, Xemein Astialdi Taldeak, Guraso Elkarteak, arte eskolak, Zerutxu Dantza Taldeak, Markinako Txalapartariak, Ondarroa eta Durangoko Senegaldarren Elkarteak, Mlomp eta Katayak musika taldeak, Markina-Xemeinen bizi diren senegaldar emakumeak eta maila pertsonalean, Joakin Akarregi zestalariak, Begoña Jaiok eta Maria Luisa Hidaigok. Denei esker eroan zen jaia aurrera. Euren barik egitea ez zen posible izango, esan dute antolatzaileek, guztiei eskerrak emanez.

Egitasmoaren helburua senegaldar eta markinarren artean elkartrukea egotea zen, elkar ezagutzera ematea. Eta hori ere lortu zela diote antolatzaileek. Jendea inplikatu egin zen, eta hainbat gauza atera ziren, aitatu dute.

Mahai-inguruetan, esate baterako, hurreko hartu-emana egotea lortu zuten. Ordu erdi luze bat egon ziren, eta motz egin zitzairen. Mahai horietatik ideiak atera dira ekimen berriak sortzen joateko. Beraz, egitasmoa ez da jai batean geratzeko, aurrera jarraitzeko asmoa badago. Aurten hobetzeko geratu dena hobetu eta ekimen gehiago egingo dira, azaldu dute.